

IBILGETUAREN KONTABILIZAZIOA

1. Ibilgetuaren kontuak
2. Inbertsioa erabilera orokor ez produktibora bideraturiko azpiegitura eta ondasunetan
3. Inbertsioa zerbitzuen funtzionamenduari lotutako ondasunetan
4. Inbertsioa gastu inmaterialetan
5. Aurrekontu kontzeptuen eta ondare kontuen arteko lotura
6. Inbentarioko balioen karga kontabilitatean
7. Ondasunen ordain trukeko eskuratzea
8. Ondasunen dohainikako eskuratzea
9. Ibilgetuaren salmenta
10. Ondasunen trukaketa
11. Ondasun eskuratzea ordainketa zati batean beste ondasun batekin eginez
12. Sozietateei egindako ekarpenak, dirutan egin ez direnak
13. Ondasun eskuratzea zorren ordainean
14. Dohainik egindako ondasun lagapena (entitate lagatzailea)
15. Dohainik egindako ondasun lagapena (entitate lagapen hartzailea)
16. Ondasun atxikipena (atxikipenean ematen duen entitatea)
17. Ondasun atxikipena (entitate atxikipen hartzailea)
18. Orube baten gaineko azalera eskubidearen lagapena
19. Ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa
20. Ekitaldi amaierako eragiketak.

1. Zeintzuk dira ondasun inbentariatuei emandako balioa islatu behar duten kontabilitate kontuak?

- *20 azpitaldeko kontuak "Erabilera orokor ez produktibora bideraturiko azpiegitura, ondasunak eta ondare historikoa"*: erabilera orokorrera emateko dauden azpiegituren, ondasunen eta ondare historikoaren balioa jasoko dute, eta partikularrek zuzenean erabiliko dituzten ondasunetan eta azpiegiturretan egindako inbertsioak sartuko dira.
- *21 azpitaldeko kontuak "Ibilgetze inmateriala"*: balorazio ekonomikoa duten ondare elementu ukiezinaren balioa jasotzen dute, betiere ondasun horiek denboran irauten dutenean eta ondasun eta zerbitzu publikoen produkzioan erabiltzen direnean, edota entitatearentzat baliabide iturri direnean.
- *22 azpitaldeko kontuak "Ibilgetu materiala"*: entitateak modu jarraituan erabiltzen dituen ondare elementuak dira, ukigarriak, higigarriak eta higiezinak, eta saltzeko ez direnak. Barne hartzen ditu ondare eta zerbitzu publikoen produkzioan erabiltzen diren ondareak eta, baita ere, ondare ondasunak (ez erabilera publikora eta ez zerbitzu publikora lotuta ez daudenak).
- *101 kontua "Atxikipeneko ondarea" eta 102 kontua "Lagapeneko ondarea"*: hirugarrenek dohainik atxiki edo laga dituzten ondasunen balioa jasoko dute.
- *106 kontua (Atxikitako ondarea) eta 107 kontua (Lagatako ondarea)*: hirugarrenei dohainik atxiki edo laga zaizkien ondasunen balioa jasoko dute.
- *109 kontua (Erabilera orokorrera emandako ondarea)*: erabilera orokorrera emandako azpiegituren, ondasunen eta ondare historikoaren balioa jasoko du.

2. Zer sartzen da “Inbertsioa erabilera orokor ez produktibora destinaturiko azpiegituran eta ondasunetan” kontzeptuan?

Inbertsio berriak dira edo elementuak birjartzeko inbertsioak, eta udal entitatearen kapitalaren balioa areagotzen dute Bertan sartzen dira bide, plaza, kale, pasealeku, parke, iturri eta urmahel, zubi eta abarren gisako aprobetxamendu edo erabilpen orokorreko herrilanetan gauzatzen diren inbertsioak, denboran zehar modu jarraituan erakundearentzat sarrerarik lortuko ez dutenak.

Bereziki, ondoko hauek sartuko dira:

- Inbertsioak lurretan: erabilera orokorrera bideraturiko hiru orubeak, landa finkak, bestelako lur ez hiritarrak, meatzeak, harrobiak etab.
- Azpiegitura eta urbanizazioa: trafiko seinaleak, argiteri instalazioak, semaforoak eta kale, bide, parke eta plazen urbanizazioa.
- Ondare historikoa
- Erabilera orokorrera bideraturiko bestelako inbertsioak

3. Zer sartzen da “Zerbitzuen funtzionamenduari lotutako inbertsioa” kontzeptuan?

Inbertsio berriak dira edo elementuak birjartzeko inbertsioak, eta udal entitatearen kapitalaren balioa areagotzen dute. Inbertsio hauen helburua da zerbitzuen funtzionamendua ahalbidetzea. Honako hauek egiten dira honelako inbertsioen bitartez: udaletxeak, hiltegiak, azokak, ospitaleak, hospizioak, hilerriak, eskolak, garraioak, igerilekuak, kirol zelaia, kulturetxeak, aterpetxeak, kanpinak, eta, oro har, zerbitzu publiko eta administratiboak egitera bideraturiko eraikin edo instalazioak, azpiegiturak barne, baldin eta denboran zehar modu jarraituan erakundearentzako sarrerarik eragiten badute. Izaeraren arabera, honelakoak izan daitezke inbertsioak:

- Lur eta ondasun naturalak
- Eraikinak eta bestelako eraikuntzak
- Makineria, instalazioak eta tresneria
- Garraio materiala
- Altzariak eta lanabesak
- Informazio prozesuetarako ekipoa
- Proiektu konplexuak (estolderia eta ur zuzkidurako sareak barne)
- Funtz bibliografikoak
- Bestelako inbertsioak

4. Zer sartzen da “Inbertsio inmaterialen gastuak” kontzeptuan?

Ekitaldi batean egin eta aktibotan gauzatzen ez diren gastuak dira, beren ondorioak etorkizuneko zenbait ekitalditan sor ditzaketenak. Adibidez:

- Turismoa sustatzeko kanpainak
- FERIA eta erakusketen antolaketa
- Ikerlanak eta proiektu sorta bat eratzerako bideraturiko azterketa eta lan teknikoak
- Hirigintza planeamendua
- Errentamendu finantzarioak
- Enakida administratiboak, jabetza industrialak, jabetza intelektuala

5. Zein da lotura zuzena aurrekontu kontzeptuen eta ibilgetuari buruzko kontabilitate kontuen artean?

- 20 azpitaldeko kontuak *"Erabilera orokor ez produktibora destinaturiko azpiegitura, ondasunak eta ondare historikoa"*: eransketa moduan jasoko dituzte aurrekontuko 60 kontzeptuan *"Inbertsioa azpiegiturretan eta erabilera orokor ez produktibora destinaturiko ondasunetan"* onartutako obligazioak.
- 21 azpitaldeko kontuak *"Ibilgetu inmateriala"*: eransketa moduan jasoko dituzte aurrekontuko 64 kontzeptuan *"Gastu eta inbertsio inmaterialak"* onartutako obligazioak.
- 22 azpitaldeko kontuak *"Ibilgetu materiala"*. Honela jasoko dira:
- Eranste moduan: aurrekontuko 62 kontzeptuan *"Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsioa"* eta 68 kontzeptuan *"Gastuak ondare-ondasunetako inbertsiotan"* onartutako obligazioak.
- Kentze moduan: sarrera-egoeraren barruan 6. kapituluko, 60 eta 61 kontzeptuetan, ondasun inbertsioen besterenganatzeak direla-eta likidatutako eskubideak.
- 24 azpitaldean *"Finantza inbertsioak tokiko sektore publikoko entitateetan"* eta 25 azpitaldean *"Bestelako finantza inbertsio iraunkorrak"* dauden kontuak: eransketa gisa jasoko dituzte gastuen egoerako 8. kapituluan epe luzerako inbertsioekin loturiko onartutako obligazioak.

6. Nola egiten da inbentarioko balioen karga kontabilitatean?

Behin inbentarioa onartuta, saldoak erregularizatuko dira kontabilitatean, sisteman zuzeneko idazpen hauek (OC) eginez:

- Baldin eta inbentario egunean, inbentarioak jasotzen ez duen ibilgetuaren saldorik badago kontabilitatean, deuseztatu egingo da. Hona hemen prozedura:
 - Kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontu guztiak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, data horretan dituzten zenbatekoaz.
 - 100 kontua (Ondarea) kargatuko da ibilgetuaren saldo deuseztatuak kontabilitatean sartu zirenean abonatuak zenbatekoaz.
 - Diferentziak sortuko balira, batik bat ondasunaren gain egindako handitze edo hobetze inbertsioengatik edota egindako amortizazioengatik, bere balioaz aparteko ondare gastu edo sarrera bat onartuko da, hurrenez hurren. Horretarako kontu hauetako bat erabiliko da, dagokionaren arabera:
 - 670 kontua (Ibilgetu inmaterialean sorturiko galerak)
 - 671 kontua (Ibilgetu materialean sorturiko galerak)
 - 770 kontua (Ibilgetu inmaterialean sorturiko mozkinak)
 - 771 kontua (Ibilgetu materialean sorturiko mozkinak)
- Beti ere:
 - Inbentarioan ateratzen diren zenbatekoak kargatu eta abonatu dira, hurrenez hurren, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
 - Kostuaren eta amortizazio metatuaren aipatu balioaren diferentzia abonatu da 100 kontuan (Ondarea).

7. Nola kontabilizatzen da ondasunen ordain trukeko eskuratzea?

Aurrekontuko eragiketa hau sistemak berak bihurtzen du ondare kontabilitatera, eta behar diren idazpenak sortzen ditu, era automatikoan, erabiltzaileak ezer egin behar izan gabe. Erabilitako aurrekontu kontzeptuari lotutako kostu kontuan kargatu eta 400 kontuan (Obligazio onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekitaldia) abonatzen du.

8. Nola kontabilizatzen da ondasunen dohainikako eskuratzea?

Ondasunen dohainikako eskuratzea kontabilizatzeke, sisteman zuzeneko idazpen hau (OC) egingo da:

- 22 azpitaldeko (Ibilgetu materiala) dagokion kontuan kargatuko da ondarearen salmenta balioaz.
- Ondoko kontu hauetako batean abonatu da jasotako ondasunen salmenta balioarengatik:
 - Eskuratzea dohaintza, jaraunspena edota legatuaren bidez egiten bada, 755 kontuan "Jasotako kapital transferentzia eta subentzioak".
 - Gainontzeko dohainikako eskuraketetan, 778 kontuan "Ezohiko mozkinak".

9. Nola kontabilizatzen da ibilgetuaren salmenta?

Ondasunen salmenta aurrekontuan kontabilizatu behar da, sarreraren erregistrorako finkatutako prozeduraren arabera, eta "R" eta "T" faseak sarrera-egoeraren 6. kapituluaren barruan dagokion kontzeptuan erregistratuko dira.

Eskubidearen likidazioak (R" fasea) berarekin ekarriko du ondare kontabilitatean idazpena egitea, era automatikoan, erabiltzaileak ezer egin behar izan gabe. Eragiketa hori 430 kontuan (Eskubide onartuengatik zordunak. Urteko ekitaldia) kargatuko da, eta erabilitako aurrekontu kontzeptuari lotutako kostu kontuan abonatu da.

Ondasuna saltzean lortutako emaitza zuzeneko idazpen hau eginez (OC) kontabilizatuko da sisteman:

- Ondare kontabilitatean, eskubide likidatuaren zenbatekoa kargatuko da, aipatu aurrekontu sarreraren abonua erregistratu den kontu berean.
- Saldutako ondasunaren baja kontabilitatean erregistratzeko, ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Salmenta balioaren eta balio garbiaren arteko diferentziaren balioaz, ondare gastu edo sarrera bat erregistratu beharko da:
 - *Ondare gastua*: besterenganatutako ondasunaren salmenta balioa txikiagoa da kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 671 gastu kontuan "Ibilgetu materialean sorturiko galerak" jasoko da.
 - *Ondare sarrera*: besterenganatutako ondasunaren salmenta balioa handiagoa da kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 771 gastu kontuan (Ibilgetu materialean sorturiko mozkinak) jasoko da.
- Ondasuna saltzearen ondorioz, epe luzera kobratzeko kontuak sortzen badira, 253 kontuan "Ibilgetuaren besterenganatze bidezko epe luzerako kredituak" kontabilizatuko dira kontu horiek. Urtean behin eguneratuko da kontu horren saldoa. Izan ere, epemuga iristean izandako sarrerak aurrekontuko eragiketak dira eta sarrera-egoerako 6. kapituluaren erregistratutako dira. Beraz, aipatu aurrekontu-sarrera kargatuko da abonua erregistratu den kontu berean, eta zenbateko bera 253 kontuan abonatu da.

10. Nola kontabilizatzen da ondasun trukaketa?

Baldin eta trukatzeko diren ondasunen balioen arteko diferentziak direla-eta, eskudiruz egindako konpentsaziorik badago, aurrekontuan bakar bakarrik aplikatuko da konpentsazioen zenbatekoa, era honetan:

- o Konpentsazioak aurrekontu gastua badakar: ordain trukeko eskurapenak kontabilizatzeko finkatutako prozeduraren arabera (gastu-egoeraren 6. kapitulua).
- o Konpentsazioak aurrekontu sarrera badakar: salmentak kontabilizatzeko finkatutako prozeduraren arabera (sarrera-egoeraren 6. kapitulua).

Ondasun trukaketa kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo da sisteman:

- Emandako ondasunaren baja kontabilitatean erregistratzeko, ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan. Abonatu beharreko zenbatekoari eskudiruz egindako konpentsazioa (aurrekontu sarrera) gutxituko zaio.

- Jasotako ondasunaren alta kontabilitatean erregistratzeko, tasazio balioa kargatuko da kostu kontuan, betiere merkatuko balioa gainditu gabe. Zenbateko horri eskudiruz egindako konpentsazioa (aurrekontu sarrera) gutxituko zaio.
- Emandako ondasunaren tasazio balioaren eta bere kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentziaren balioaz, ondare gastu edo sarrera bat erregistratu beharko da:
 - *Ondare gastua*: emandako ondasunaren tasazio balioa txikiagoa denean bere kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 671 gastu kontuan (Ibilgetu materialean sortutako galerak) jasoko da.
 - *Ondare sarrera*: emandako ondasunaren tasazio balioa handiagoa denean bere kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 771 sarrera kontuan (Ibilgetu materialean sortutako mozkinak) jasoko da.
- Eskuratutako ondarearen eta emandako ondarearen tasazio baloreen artean diferentzia dagoenean eta diferentzia hori dirutan egindako ordainketekin edo kobruekin konpentsatzen ez denean, subentzio gisa kontabilizatuko da, jasotakoa edota emandakoa, 755 "Jasotako kapital transferentziak eta subentzioak" edo 654 "Emandako kapital transferentziak eta subentzioak" kontuan, hurrenez hurren .

Trukaketako ondasunen tasazio balioak parekoak ez direnean, eta diferentziak dirutan ordaintzen direnean, eragiketaren kontabilizazioa atal honetan adierazitakoaren arabera egingo da baldin eta dirutan ordaindu beharreko kopurua jasotako ondasunaren tasazio balioaren 100eko 50 baino baxuagoa bada. Hori betetzen ez denean eragiketa islatuko da ordainketaren zati bat beste ondasun bat emanez egiten den ondasun eskuratze kasuetan bezala, 11. atalean azaldutakoaren arabera.

11. Ondasun eskuratzea ordainketa zati batean beste ondasun batekin eginez

Dirutan ordaindutako balioaz aurrekontu gastu bat kontabilizatuko da, ordain trukeko eskurapenak kontabilizatzeko finkatutako prozeduraren arabera (gastu-egoeraren 6. kapitulua).

Bestalde, eskuratzearen ordainean beste ondasun baten ematea kontabilizatzeko zuzeneko idazpen bat (OC) egingo da sisteman:

- Emandako ondasunaren baja kontabilitatean erregistratzeko, ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Eskuratutako ondasunaren alta kontabilitatean erregistratzeko, dagokion kostu kontuan kargatuko da emandako ondarearen balio garbiaren kopuruaz, kontuan izanik aurrekontuan jasotako gastuak ere kostu kontu honetan kargu bat sortu duela eta, guztira, eskuratutako ondarearen balioak ezin duela gainditu bere merkatuko balioa.

12. Nola kontabilizatzen da sozietateei egindako ekarpen ez-diruzkoa?

Sozietateei egindako ekarpen ez-diruzkoa kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo da sisteman:

- Emandako ondasunaren baja kontabilitatean erregistratzeko, ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Eskuratutako ibilgetu finantzarioaren alta kontabilitatean erregistratzeko, ekarpen ez-diruzkoari buruzko erabakian finkatutako balioa kargatuko da kostu kontuan.

Kontuan hartuta merkataritzako sozietate partizipatua tokiko sektore publikoan dagoen edo ez, kostu kontu hau azpitalde hauetako batean agertuko da:

- 24 azpitaldea (Tokiko sektore publikoko entitateetako inbertsio finantzarioak)
- 25 azpitaldea (Bestelako inbertsio finantzario iraunkorrak)
- Emandako ondasunaren tasazio balioaren (ibilgetu finantzarioari emandako balioa) eta horren kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentziaren balioaz, ondare gastu edo sarrera bat erregistratu beharko da.
 - *Ondare gastua*: emandako ondasunaren tasazio balioa txikiagoa da kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 671 gastu kontuan (Ibilgetu materialean sorturiko galerak) jasoko da.
 - *Ondare sarrera*: emandako ondasunaren tasazio balioa handiagoa da kontabilitateko balio garbia baino. Diferentzia hori 771 gastu kontuan (Ibilgetu materialean sorturiko mozkinak) jasoko da.

13. Nola kontabilizatzen da zorren ordaineen jasotako ondasun baten esleipena?

Zorren ordaineen jasotzen den ondasuna esleitzean, lehendabizi, aurrekontuan, zorren kitapena kontabilizatu behar da, sarrerak erregistratzeko finkatutako prozeduraren arabera. Horretarako, “R/” fasea aplikatuko da aurrekontuan, sarrera-egoerako ekitaldi itxien multzoan, dagozkion kontzeptuetan.

Aldi berean, esleipena kontabilizatuko da, zuzeneko idazpen hau (OC) eginez sisteman:

- 22 azpitaldearen barruan (Ibilgetu materiala), dagozkion kontuan kargatuko da.
- 680 kontuan (Ekitaldi itxietako gastuak eta galerak) abonatu da.

Abonua 680 kontuan egin behar da; izan ere, aurreko ekitaldietan likidatutako eskubideak deuseztatzearen ondorioz (R/” fasea) ondoko idazpena egin da ondare kontabilitatean, era automatikoan, erabiltzaileak ezer egin behar izan gabe:

- 680 kontuan (Ekitaldi itxietako gastuak eta galerak) kargatu da.
- 434 kontuan (Ekitaldi itxietan deuseztatutako eskubideak) abonatu da.

Gauzak horrela, kontu honen amaierako saldo zordunean soilik islatuko dira entitateari galerak ekartzen dizkieten aurrekontu itxietako eskubideen aldaketak.

14. Nola kontabilizatzen du lagatzaileak ondasunen dohainikako lagapena?

1) Ondasun higiezinaren lagapena

Ondasuna lagatzen duen entitateak, lagapena kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Lagatutako ondasunak kontabilitatean duen balio garbia kargatuko da 107 kontuan (Lagatutako ondarea).

2) Lagatutako ondasunak itzultzea

Ondasuna laga duen entitateak, itzultzea kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan kargatu eta abonatu dituzte, hurrenez hurren, ondasunari lagapen datan inbentarioan zegozkion zenbatekoak.
- 107 kontuan (Lagatako ondarea) abonatu du lagapen datan kargatutako zenbateko bera.

Ondoren, itzulitako ondasunak lagapen-aldian izan duen balio galera jasoko da, entitatearen eskuetan egon izan balitz bezala kalkulatuta, sisteman zuzeneko ondoko idazpen honen (OC) bidez:

- 691 kontuan (Ibilgetu materialean amortizaziorako zuzkidura) kargatuko da.
- 282 (Ibilgetu materialaren amortizazio metatua) kontuan abonatu da.

Lagapen hartzaileak handitze, hobetze edo berritze lanak egin baditu lagatako ondasunean, lan horien balioa gehituko zaio aktiboaren kostu kontuan kargatuz. Lan horien balorazioa ondoko irizpideen arabera egingo da, hurrenkera errespetatuz:

1. Salmenta balioa, erraz zehaztu badaiteke.
2. Eskuratzearen kontabilitate balio garbia, hori zehazteko nahikoa dokumentu baldin badago.
3. Balio hutsa, aurreko puntuetako balioak ezin badira zehaztu.

Kasu honetan, ondasunaren kostu kontuan egindako karguaren kontrapartida gisa 771 "Ibilgetu materialean sortutako mozkinak" kontuan abonatu da.

15. Nola kontabilizatzen du lagapen hartzaileak ondasunen dohainikako lagapena?

1) Lagatako ondasunak hartzea

Ondasuna hartu duen entitateak, lagapena kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Ondasunaren salmenta balioa kargatuko du dagokion kostu kontuan.
- Zenbateko berbera abonatu du 102 kontuan (Lagapeneko ondarea).

Une horretatik aurrera, lagapenak irauten duen bitartean, hartzaileak urtero amortizaziorako zuzkidura kontabilizatuko du, eskuratzearen balioa oinarri hartuta, hau da, lagatze unean zuen salmenta balioa, horretarako definituta dagoen prozeduraren arabera.

Lagapen hartzaileak lagatako ondasuna handitzeko, hobetzeko edo berritzeko inbertsioa egiten badu, inbertsio horren eskuratzeko balioa gehitu beharko dio ondasunak aktiboan duen balioari.

2) Lagatako ondasunak itzultzea

Lagapeneko ondasuna hartu duen entitateak, haren itzulketa kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Ondasunari itzulketa datan inbentarioan dagozkion zenbatekoak abonatu eta kargatuko ditu, hurrenez hurren, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Lagapen datan abonatu duen zenbateko bera kargatuko du 102 kontuan (Lagapeneko ondarea).
- Hartze balioaren eta itzultze datako kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentziaren balioaz (funtsean lagapen-aldian egindako amortizazioak eta inbertsioak), kontabilizatuko da:

- Eskuratu zeneko balioa handiagoa bada itzultze datako kontabilitateko balio garbia baino, 771 "Ibilgetu materialean sortutako mozkinak" kontuan abonatu.

- Eskuratu zeneko balioa txikiagoa bada itzultze datako kontabilitateko balio garbia baino, 671 "Ibilgetu materialean sorturiko galerak" kontuan kargua.

16. Nola kontabilizatzen du ondasunen atxikipena ondasuna eman duen entitateak?

1) Ondasun higiezinaren atxikipena

Ondasuna eman duen entitateak, atxikipena kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman

- Ondasunaren kostu eta amortizazio metatuaren zenbatekoak abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, erregistratutako balioaz, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Atxikitako ondasunaren kontabilitateko balio garbia kargatuko da 106 kontuan (Adskribituriko ondarea).

2) Atxikitako ondasunak berriz hartzea

Ondasuna atxikipenean eman duen entitateak, haren berrartzea kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Ondasunak atxikipen hartzailearen kontabilitatean dituen balioengatik kargatu eta abonatu dira kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuak, hurrenez hurren. Balio horiek barne hartzen dituzte hartzaileak egindako inbertsioei dagozkienak.
- Atxikipen datan kargatutako zenbateko bera abonatu du 106 kontuan (Adskribituriko ondarea).
- Ondasunaren kontabilitate balio garbiak izan duen aldeagatik, atxikipen dataren eta itzultze dataren artean, ondare gastu edo sarrera bat kontabilizatuko da:
 - Ondare gastua: batik bat ondasunaren amortizazioaren eraginez sortuko da eta 671 "Ibilgetu materialean sorturiko galerak" kontuan kargatuko da.
 - Ondare sarrera: atxikipen hartzaileak ondasunean egindako inbertsioa ondasun horren amortizazioa baino handiagoa izan denean sortuko da eta 771 "Ibilgetu materialean sortutako mozkinak" kontuan abonatu da.

Berrartzetik aurrera, ondasuna eta bere gainean onuradunak egin zituen inbertsioak amortizatu beharko dira, oinarritzat hartuta eskuratze balioaren eta amortizazio metatuaren arteko diferentzia.

17. Nola kontabilizatzen du ondasunen atxikipena ondasuna hartu duen entitateak?

1) Ondasunak atxikipenean hartzea

Atxikipen hartzaileak, atxikitako ondasunaren hartzea kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Atxikipen datan ondasunari atxikipen emailearen kontabilitatean dagozkion zenbatekoak abonatu eta kargatuko ditu, hurrenez hurren, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Ondasunaren balio garbiaz abonatu du 101 kontuan (Adskripzioko ondarea).

Onuradunak kontabilitatean jaso beharko ditu ondasun horren gainean egindako handitze, hobetze eta berritze inbertsioak, eta urtean behin ondasunari dagokion amortizaziorako zuzkidura kontabilizatu beharko du.

2) Atxikipenean jasotako ondasunak itzultzea

Atxikipen hartzaileak, ondasunaren itzulketa kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo du sisteman:

- Ondasunari itzulketa datan inbentarioan dagozkion zenbatekoak abonatu eta kargatuko ditu, hurrenez hurren, kostuari eta amortizazio metatuari buruzko kontuetan.
- Hartze datan abonatutako zenbateko bera kargatuko du 101 kontuan (Adskripzioko ondarea).
- Hartze balioaren eta itzultze datako kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentziaren balioaz (funtsean atxikipen-aldian egindako amortizazioak eta inbertsioak), kontabilizatuko da:
 - Atxikipenean eskuratu zeneko balioa handiagoa bada itzultze datako kontabilitateko balio garbia baino, 771 "Ibilgetu materialean sorturiko mozkinak" kontuan abonua.
 - Eskuratu zeneko balioa txikiagoa bada itzultze datako kontabilitateko balio garbia baino, 671 "Ibilgetu materialean sorturiko galerak" kontuan kargua.

18. Orube baten gaineko azalera eskubidearen lagapena

Ohiko kasua izaten da terreno baten jabea den entitateak haren gainean azalera eskubidea eratzea hirugarren baten alde hainbat urtetako epean; kontraprestazio gisa jasotzen du, batetik, diru kopuru bat eskubidea eratzean eta, bestetik, terrenoan eraikitako ondasun higiezinaren jabetza aipatu azalera eskubidea amaitzean. Nola kontabilizatu behar du entitateak azalera eskubidearen lagapena?

Orokorrean, azalera eskubidea eratzeak diru sarrera dakarkio terrenoaren jabeari, aipatu eskubideak dirauen bitartean sortuko dena, alde batera utzita aurrez hitzartutako ordainsariak noiz kobratuko dituen, betiere sortzapen printzipioari jarraituta. Kontabilitatean agertzeko, eskubidea eratzean jasotako zenbatekoaren pareko aurrekontu sarrera bat erregistratu behar da sarrera egoeraren V. kapituluaren, 550 kontzeptuan (emakida administratiboak). Eragiketa horrek idazpen hau sortuko du ondare kontabilitatean:

- Kargu bat Diruzaintzako kontuan, jasotako ordainsariaren parekoa
- Abono bat 7210 kontuan (Sarrerak emakida eta aprobetxamendu bereziengatik), zenbateko beraren parekoa.

Gero, sarrera berriro sailkatu beharko da, sisteman zuzeneko idazpen hau (OC) eginez:

- Kargu bat egingo da 7420 kontuan (Sarrerak emakida eta aprobetxamendu bereziengatik), jasotako kontraprestazioaren parekoa.
- Zenbateko bera abonatu da 1390 kontuan ("Hainbat ekitalditan banatu beharreko beste sarrera batzuk").

Gainera, azalera eskubidea hartzen duen entitateak terrenoan eraikitako ondasun higiezina eragiketaren kontraprestazio bat gehiago den neurrian, kontabilitatean aktibo gisa jaso behar da higiezinaren gaineko etorkizuneko jabetza eskubidea, eta behin kontratuaren epea amaituta eraikinak hartuko duen zenbateko eguneratuaren arabera kalkulatu da balioa, baztertu gabe garrantzi erlatiboaren printzipioa aplikatzeko aukera. Eragiketaren zati honek ez du ekarriko aurrekontu aplikaziorik, eta ondare kontabilitatean zuzeneko idazpen hau (OC) egin beharko da:

- Kargu bat 218 kontuan (Bestelako ibilgetu inmateriala), egindako balorazioaren parekoa.
- Zenbateko bera abonatu da 1390 kontuan (“Ekitaldi batzuetan banatzeko beste sarrera batzuk”).

Hala badagokio, balorazioak zuzendu beharko dira ekitaldia amaitzean, baldin eta aktiboaren merkatuko balio txikiagoa bada haren balio kontabilizatua baino. Etorkizunean eraikinaren balioa kalkulatzeko ezinezko egiten duten arrazoiak badira, ez da erregistratuko aipatu balioa, harik eta eraikina itzuli arte, eta memorian jaso beharko da zergatik den ezinezkoa balorazioa.

Azkenik, 1390 kontuaren saldoa (Hainbat ekitalditan banatu beharreko beste sarrera batzuk) emaitza kontuari egotzi beharko zaio, irizpide finantzarioa erabiliz, azalera eskubideak dirauen bitartean.

19. Nola kontabilizatzen da ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa?

Ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa kontabilizatzeko, zuzeneko idazpen hauek (OC) egingo dira sisteman:

- Ondare ondasunak nahiz herri zerbitzurako ondasunak herriaren erabilerakoak izatera pasatzen direnean:
 - Haien kontabilitateko balio garbia kargatuko da 109 kontuan (Erabilera orokorrera emandako ondarea).
 - Kostuari buruzko 22. azpitaldeko kontuan (Ibilgetu materiala) eta amortizazio metatuari buruzko kontuan abonatu eta kargatuko dira, hurrenez hurren, ondasunari, kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakiaren datan, zegozkion zenbatekoak.
- Herriaren erabilerakoak ziren ondasunak ondarean sartzean nahiz herri zerbitzurakoak izatera pasatzean,
 - 22 azpitaldeari (Ibilgetu materiala) dagokion kontuan kargatuko da.
 - Kontu hauetakoren batean abonatu da:
 - 109 kontuan (Erabilera orokorrera emandako ondarea), baldin eta herri erabilerako ondasuna inbentarioan badago, erabakiaren datan zegozkion zenbatekoaz; edo, bestela.
 - 100 kontuan (Ondarea), baldin eta herri erabilerako ondasuna inbentarioan ez badago, tasazio zenbatekoaz.

20. Nolako jarduketak gauzatu behar dira ekitaldiaren amaieran ibilgetuari dagokionez?

1) Ibilgetua amortizatzea

Urteko zuzkidura kontabilizatuko da, zuzeneko idazpen hau (OC) eginez sisteman:

- Kargua 691 kontuan (Ibilgetu materialaren amortizaziorako zuzkidura).
- Abonua 282 kontuan (Ibilgetu materialaren amortizazio metatua).

2) Erabilera orokorrera ematea

Ekitaldiaren barruan erabilera orokorrera emandako azpiegitura eta ondasunek itxiera datan zuten kostu metatua lortu beharko da, alde batera utzita gastua zein urtetan gertatu den eta aurrekontu izaera edo aurrekontuz kanpokoa izan duen.

Zenbateko berberaz, zuzeneko idazpen hau (OC) egingo da sisteman:

- Aipatu kostu metatua kargatuko da 109 kontuan (Erabilera orokorrera emandako ondarea).
- Zenbateko berbera abonatu da 20. azpitaldeko kontuetan (Erabilera orokor ez produktibora emandako azpiegitura, ondasunak eta ondare historikoa).

Egiaztatu beharko da 20 azpitaldeko kontuen saldoak, ekitaldi itxieran, bukatu gabeko azpiegiturei bakarrik dagozkiela.

3) Kontabilizatutako idazpenak berrikustea

Komeni da “kapitalizazioko gutxieneko zenbatekoa” finkatzea, eta zenbateko hori baino gutxiagoko ondasunak ez txertatzea ibilgetuan, nahiz eta, beren izaeraz, kapitalizatuak izateko ezaugarriak izan. Urtean behin 2 taldeko kontuetan aktibatutako ondasunak berrikusiko dira, egiaztatzeko haien zenbatekoa handiagoa dela gutxieneko zenbateko minimo kapitalizagarria baino. Baldintza hori betetzen ez duten kontabilitate idazpenak honela erregularizatu behar dira:

- Erregularizatu beharreko idazpen guztiak kontu bakarrean bilduko dira, ondoren identifikatu ahal izateko. Horretarako, “OC” eragiketa bati alta emango zaio modu honetan:
 - Erregularizatu beharreko zenbatekoa abonatu da 2. taldeko kontuetan (Ibilgetua).
 - Erregularizatu beharreko zenbatekoa kargatuko da 2971 kontuan (Inbertsio ez-kapitalizagarriak). Azken kontu hau, egon ezean, sortu egin beharko da.
- Ekitaldiko gastuei egotziko zaizkie erregularizatu beharreko eragiketa guztiak, ondoko “OC” eragiketaren bidez:
 - 6 taldeko kontuetan (Erosketak eta gastuak) kargatuko dira.
 - 2971 kontuan (Inbertsio ez-kapitalizagarriak) abonatu da